

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

571/2023 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez onesten baitira «Atzerrian kokatutako diru birtualari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 721 eredua eta hura aurkezteko modua eta epea, eta zeinaren bidez aldatzen baita 168/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, «Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorten informatiboa» aurkezteko erabili beharreko 720 eredua eta haren aurkezpen modu eta diseinu logikoak onesten dituen.

Uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauak, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoak, 1. artikuluko hemeretzigarren apartatuaren bitartez, hamaikagarren xedapen gehigarria txertatu zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatu beharra arautzen duena.

Informatu beharra dakarten gaien artean, zergadunak atzerrian matrikulaturik edo erregistraturik dituen ondasun higigarriak eta haien gaineko eskubideak daude.

Aurrekoaren ondorioz, diru birtuala informazio betebeharraren mende geratu da, eta Gipuzkoako Foru Ogasunak hala eman du ezagutzera azkenaldi honetan.

Urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuak, Zergen Foru Arau Orokorra garatzen duten zenbait erregelamendu aldatzen dituenak, ñabardura bat sartu zuen betebeharraren espezifikoa horren erregelamenduzko garapenean; zehazki, argi utzi zuen ezen, diru birtualari dagokion urteko aitorten informatiboa aurkezteko betebeharraren ondorioetarako, diru birtual guztien baterako balioak gaintitu behar duela 50.000 euroko zenbatekoa.

Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatu beharrari dagokion informazio guztia 720 ereduaren bidez bideratu da orain arte, baita ondasun higigarriak eta, zehatzago esanda, diru birtualari dagokiena ere.

Hala ere, aipatutako 2/2005 Foru Arauaren hamaikagarren xedapen gehigarri horrek aldaketak izan ditu 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Izan ere, abenduaren 20ko 4/2022 Foru Arauak, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituenak, atzerrian kokatutako diru birtualari buruz informatzeko betebeharraren espezifikoa ezarri zuen xedapen horretan, ondasun higigarriak buruz informatzeko obligazioaz aparte. Aldaketa horren ondorioz, zergapekoek informazioa eman beharko dute bere titulartasunpean atzerrian duten diru birtualari buruz, bai eta onuradun edo baimendu gisa agertzea edo beste moduren batean xedatzeko ahalmena izatea dakartenei buruz ere, diru hori gako kriptografiko pribatuak hirugarrenen izenean babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsona edo entitateek zaintzen badute diru birtuala mantendu, gorde eta transferitzeko.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 571/2023, de 16 de diciembre, por la que se aprueban el modelo 721 «Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero» así como su forma y plazo de presentación, y se modifica la Orden Foral 168/2022, de 17 de marzo, por la que se aprueban el modelo 720, «Declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero», así como su forma de presentación y diseños lógicos.

El apartado diecinueve del artículo 1 de la Norma Foral 5/2013, de 17 de julio, de medidas de lucha contra el fraude fiscal, de asistencia mutua para el cobro de créditos y de otras modificaciones tributarias, aprobó la disposición adicional undécima de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que regula la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero.

Una de las materias sujetas a esta obligación de información es la de los bienes muebles y derechos sobre los mismos de titularidad de la o del contribuyente que se encuentren situados, matriculados o que consten en registros de países extranjeros.

En virtud de lo anterior, las monedas virtuales han sido objeto de esta obligación de información, y así se ha venido informando desde la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

El Decreto Foral 12/2021, de 5 de octubre, por el que se modifican determinados reglamentos de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria, introdujo una matización en el desarrollo reglamentario de esta obligación específica, aclarando que, a efectos de la obligación de presentar la declaración informativa anual, en lo referente a las monedas virtuales es el valor conjunto de todas las monedas virtuales el que debe superar la cifra de 50.000 euros.

El suministro de toda la información correspondiente a la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero se ha canalizado hasta ahora a través del modelo 720, incluida la correspondiente a bienes muebles y, más específicamente, la correspondiente a monedas virtuales.

Sin embargo, la referida disposición adicional undécima de la citada Norma Foral 2/2005 ha sido modificada con efectos a partir de 1 de enero de 2023, por la Norma Foral 4/2022, de 20 de diciembre, por la que se aprueban medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal, estableciendo una obligación de información específica sobre las monedas virtuales situadas en el extranjero al margen de la obligación de informar sobre bienes muebles. En virtud de esta modificación las o los obligados tributarios deberán informar acerca de las monedas virtuales situadas en el extranjero que sean de su titularidad, o respecto de las cuales tengan la condición de persona beneficiaria o autorizada o, de alguna otra forma, ostente poder de disposición, custodiadas por personas o entidades que proporcionan servicios para salvaguardar claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales.

Betebehar espezifiko hori abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 54 bis artikulua garatu du, hain zuzen ere, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituen abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuak gehitu duenak.

Horrenbestez, foru agindu honen bidez 721 eredu onesten da, «Atzerrian kokatutako diru birtualari buruzko aitorten informatiboa» izenekoa, betebehar hori berariaz betetzea ahalbidetzeko. Horrekin normalizatzen da atzerrian dagoen diru birtualari buruz eman beharreko informazioa, eta, gainera, erraztu egiten da zerga administrazioen artean beharrezkoa den koordinazioa, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Itunean aurreikusten den bezala.

Foru aginduak, eman beharreko informazioa normalizatzeko aintzat hartu behar diren erregistro diseinuak onesteaz gain (foru agindu honen eranskinean jasotzen direnak), aurkezpen modu bakarra ezartzen du eredurako, internet bidezkoa hain zuzen, Zergabidea plataformatik.

Horrez gain, atzerrian kokatutako diru birtualaren eredu informatibo berria onesteak beharrezko egiten du aldatzea martxoaren 17ko 168/2022 Foru Agindua, «Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorten informatiboa» aurkezteko erabili beharreko 720 eredu eta haren aurkezpen modu eta diseinu logikoak onesten dituen, diru birtualaren aitortenaren inguruko xedapenak bai foru agindutik eta bai 720 eredutik bertatik ezabatzeko.

Era berean, beharrezko gertatzen da 168/2022 Foru Agindu horren 2. artikulua egokitzea abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 54. artikuluko 4. apartatuari eman zaion idazketa berriarekin bat etor dadin. Helburua da ereduaren eremu subjektiboan sartzea aipatutako 54.4 artikuluko b) letran aurreikusten den kasu berria, zeinak esaten baitu aseguruaren hartzailea ez bada errentaren onuraduna eta erreskate eskubideari eusten badio, hartzaile horrek aurkeztu beharko duela 720 eredu.

Orobat, ereduaren erregistro diseinuak aldatzen dira, 2. motako erregistroa zehazki (xehetasun erregistroa), ereduaren zerga informazioa Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 54. artikuluko idazketa berrira egokitze. Horretarako, aldaketak sartzen dira «1. balorazioa: saldoa edo balioa abenduaren 31n; saldoa edo balioa iraungitze datan; eskurapen balioa» eremuan, eta helburua da zehaztea ezen «Ondasun edo eskubide motaren gako» eremuak «S» balioa duen kasuetan –bizitza edo baliaezintasun aseguru eta bizitza aseguru batetik datozen aldi baterako edo biziarteko errentei dagoen balioa, aseguru entitateak atzerrian kokatuta daudenean–, hornidura matematikoak abenduaren 31n duen balioari buruz informatu beharko dela baldin eta data horretan aseguruaren hartzaileak ez badu ahalmenik erabateko erreskate eskubidea baliatzeko (heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak soilik estaltzen dituzten aldi baterako aseguru kontratuen kasuan izan ezik).

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. «Atzerrian kokatutako diru birtualari buruzko aitorten informatiboa» aurkezteko 721 eredu onestea.

Onetsita geratzen da «Atzerrian kokatutako diru birtualari buruzko aitorten informatikoa» aurkezteko erabiliko den 721 eredu, behartutako zergapekoek urtero aurkeztu beharko dutena 5. artikuluan aurreikusitako eran eta foru agindu honen eranskinean jasotzen den edukiarekin.

Dicha obligación específica se ha desarrollado mediante el artículo 54 bis del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que se ha añadido a través del Decreto Foral 56/2023, de 12 de diciembre, por el que se modifican diversos reglamentos tributarios.

Así pues, mediante la presente orden foral se aprueba el modelo 721, «Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero», que permitirá cumplir específicamente con esta obligación. De esta manera se normaliza la información a suministrar respecto a monedas virtuales situadas en el extranjero, de forma que se facilita la coordinación entre las diferentes Administraciones tributarias prevista en el Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

La orden foral, además de aprobar los diseños de registro a través de los cuales se normaliza la información a suministrar, los cuales figuran en el anexo de esta orden foral, establece como forma de presentación del modelo de declaración exclusivamente la presentación a través de Internet, desde la plataforma Zergabidea.

Adicionalmente, como consecuencia de la aprobación de este nuevo modelo informativo sobre monedas virtuales situadas en el extranjero, resulta necesario modificar la Orden Foral 168/2022, de 17 de marzo, por la que se aprueba el modelo 720, declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero, así como su forma de presentación y diseños lógicos, para eliminar, tanto de la orden foral como del propio modelo 720, las disposiciones que incorporan para declarar dichas monedas virtuales.

Así mismo, resulta necesario adaptar el artículo 2 de dicha Orden Foral 168/2022 a la nueva redacción del apartado 4 del artículo 54 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, con el objeto de incluir en el ámbito subjetivo del modelo el nuevo supuesto previsto en la letra b) del mencionado artículo 54.4, según el cual, en caso de que la tomadora o el tomador del seguro sea persona distinta de la beneficiaria de la renta y conserve el derecho de rescate, será dicha tomadora o dicho tomador la o el obligado a presentar el modelo 720.

De igual manera, se modifican los diseños de registro del modelo, concretamente los de tipo 2, registro de detalle, con la finalidad de adaptar la información fiscal del modelo a la nueva redacción del referido artículo 54 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales. Para ello, se modifica el campo «Valoración 1: saldo o valor a 31 de diciembre; saldo o valor en la fecha de extinción; valor de adquisición», para especificar que en aquellos casos en que el campo «Clave tipo de bien o derecho» tome el valor «S» relativo a los seguros de vida o invalidez y rentas temporales o vitalicias que procedan de un seguro de vida, cuyas entidades aseguradoras se encuentren situadas en el extranjero, se informará del valor de la provisión matemática a 31 de diciembre cuando la tomadora o el tomador del seguro no disponga de la facultad de ejercer el derecho de rescate total en dicha fecha (excepción hecha de los contratos de seguros temporales que solo incluyan prestaciones para caso de fallecimiento o invalidez u otras garantías complementarias de riesgo).

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 721 «Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero».

Se aprueba el modelo 721 «Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero», que habrá de presentarse con periodicidad anual por las y los obligados a declarar, de acuerdo con la forma de presentación prevista en el artículo 5 y con el contenido a que se refiere el anexo de esta orden foral.

2. artikulua. 721 eredu aurkeztera behartuak.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 54 bis artikuluko 1. apartatua aipatzen direnak aurkeztu behar dute 721 eredu.

3. artikulua. 721 ereduaren jaso beharreko informazioa.

Foru agindu honen eranskinean aipatzen den informazioa aitorpen beharko da 721 ereduaren, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 54 bis artikuluan aurreikusitakoarekin bat, atzerrian dagoen diru birtualari dagokionez.

4. artikulua. 721 eredu aurkezteko epea.

721 eredu urtero aurkeztuko da, eman beharreko informazioari dagokion urtea amaitu ondorengo urteko apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean.

5. artikulua. 721 eredu aurkezteko era.

1. 721 eredu internet bidez aurkeztuko da, Zergabidea plataformatik, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko obligazioa arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan jasotakoaren arabera.

Aurkeztu beharreko ereduak prestatzeko, Zergabidea plataformak berak eskatutako datuak bete beharko dira.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik ere sartu ahal izango da plataformara.

2. Zergabidea plataformaren bitartez, posible izango da, halaber, aurkeztutako aitorpenak aldatu, zuzendu edo baliogabetzea.

Azken xedapenetako lehena. 168/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiboa aurkezteko erabili beharreko 720 eredu eta haren aurkezpen modu eta diseinu logikoak onesten dituen, aldatzea.

Jarraian zehazten den eran aldatzen da 168/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiboa aurkezteko erabili beharreko 720 eredu eta haren aurkezpen modu eta diseinu logikoak onesten dituen:

Bat. 2. artikuluko d) letra honela geratzen da idatzita:

«d) Baldin eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 54. artikuluko 4. apartatua xedatutakoaren arabera, eta artikuluko 5. apartatua aurreikusitako salbuespenak kontuan hartuta, urte bakoitzeko abenduaren 31n bizitza edo baliagintza aseguru hartzekodun badira –aseguru entitate atzerrian dagoenean–, edo urte bakoitzeko abenduaren 31n aldi baterako edo biziarteko errenten hartzekodun badira atzerrian dauden entitateei kapital bat dirutan, eduki ekonomikoko eskubideak edo ondasun higigarriak edo higiezinak emateagatik.

Aseguruaren hartzailea ez bada errentaren onuraduna eta erreskate eskubideari eusten badi, hartzaile horrek aurkeztu beharko du 720 eredu.»

Bi. 2.f) artikuluko a') letra honela geratzen da idatzita:

«a') Atzerrian dauden edo izan diren ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, haien balio unitarioa 50.000 euro baino handiagoa bada.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 721.

Las y los obligados a presentar el modelo 721 son los delimitados en el apartado 1 del artículo 54 bis del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Artículo 3. Objeto de la información del modelo 721.

Deberá ser objeto de declaración en el modelo 721 la información contenida en el anexo de esta orden foral, de conformidad con lo previsto en el artículo 54 bis del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en relación con las monedas virtuales situadas en el extranjero respecto de las que se tenga la obligación de declarar.

Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 721.

La presentación del modelo 721 tendrá carácter anual y se realizará entre el 1 de abril y el 30 de junio del año siguiente a aquel al que se refiera la información a suministrar.

Artículo 5. Forma de presentación del modelo 721.

1. El modelo 721 se presentará a través de Internet, desde la plataforma Zergabidea, con arreglo a lo previsto en Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Los modelos a presentar se confeccionarán cumplimentando los datos requeridos al efecto por la propia plataforma Zergabidea.

La plataforma Zergabidea se encuentra disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. Se podrá acceder, asimismo, desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. Dicha plataforma Zergabidea posibilitará, asimismo, la modificación, rectificación o anulación de las declaraciones presentadas.

Disposición final primera. Modificación de la Orden Foral 168/2022, de 17 de marzo, por la que se aprueba el modelo 720, declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero, así como su forma de presentación y diseños lógicos.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 168/2022, de 17 de marzo, por la que se aprueba el modelo 720, declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero, así como su forma de presentación y diseños lógicos:

Uno. La letra d) del artículo 2 queda redactada en los siguientes términos:

«d) Cuando, según lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 54 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con las excepciones previstas en el apartado 5 del citado artículo, resulten tomadores a 31 de diciembre de cada año de seguros de vida o invalidez cuando la entidad aseguradora se encuentre situada en el extranjero o cuando sean beneficiarios a 31 de diciembre de cada año de rentas temporales o vitalicias como consecuencia de la entrega de un capital en dinero, de derechos de contenido económico o de bienes muebles o inmuebles, a entidades situadas en el extranjero.

En caso de que el tomador del seguro sea persona distinta del beneficiario de la renta y conserve el derecho de rescate, será dicho tomador el obligado a presentar el modelo 720.»

Dos. La letra a') del artículo 2.f) queda redactada en los siguientes términos:

«a') Bienes muebles y derechos sobre los mismos cuyo valor unitario sea superior a 50.000 euros y que se encuentren o se hayan encontrado en el extranjero.

Eskudiruaren eta harri eta metal bitxien kasuan, ondasun kategoria horien baterako balioak gainditu beharko du 50.000 euroko kopurua.»

Hiru. «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremua (102. posizioa foru aginduaren II. eranskineko 720 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan -xehetasun erregistroan-), honela geratzen da idatzita:

«— Posizioak: 102.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Ondasun edo eskubide motaren gakoa.

Dagokion gako alfabetikoa jarriko da, ekitaldian edukitako ondasun edo eskubide motaren arabera:

«C»: Banku edo kreditu trafikoa aritzen diren atzerriko entitateetan irekitako kontuak.

«V»: Atzerrian kokatutako balore edo eskubideak, edozein motatako entitate juridikoetan parte hartzea adierazten dutenak; atzerriko baloreak, kapital propioak hirugarrenei lagatzea adierazten dutenak, edo edozein tresna juridikori kudeaketa edo administrazioarako emandakoak, fideikomisoak eta trusteri edo ondare masei emandakoak barne, baldin eta, halakoek nortasun juridikorik izan ez arren, trafiko ekonomikoan jardun badezakete.

«I»: Atzerrian kokatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzioak do partaide-tzak.

«S»: Bizitza edo baliaezintasun aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, aseguru entitateak atzerrian kokatuta badaude.

«B»: Atzerrian kokatutako higiezinaren titulartasuna eta haien gaineko eskubide errealak.

«M»: Atzerrian dauden edo izan diren ondasun higigarrien titulartasuna eta haien gaineko eskubideak, haien balio unitarioa 50.000 eurotik gorakoa denean.

Eskudiruaren eta harri eta metal bitxien kasuan, kategoria horien baterako balioak gainditu beharko du 50.000 euroko kopurua.

«R»: Atzerriko erregistroetan matrikulatu edo inskribatutako ondasun higigarrien titulartasuna eta horien gaineko eskubideak, haien balio unitarioa 50.000 eurotik gorakoa denean.

Bizitza aseguruei buruz ez da informaziorik eman beharko heriotza arriskua bakarrik estaltzen badute (bizitzakoak ez diren arloetako arrisku osagarriak estaltzea eragotzi gabe) eta erreskate baliorik gabeak badira.»

Lau. «Entitatearen helbidea edo ondasun higiezin edo higigarriaren kokapena» eremua (251etik 414ra bitarteko posizioak foru aginduaren II. eranskineko 720 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan -xehetasun erregistroan-), honela geratzen da idatzita:

«— Posizioak: 251-414.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuen azalpena: Entitatearen helbidea edo ondasun higiezin edo higigarriaren kokapena.

«Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioak) «C», «V», «I» edo «S» balioa hartzen badu, aurreko bi eremuetan identifikatutako entitatearen helbidea jarriko da eremu honetan.

«Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioak) «B» balioa hartzen badu, aitortutako azpigakoa edozein izanda ere, aitortzen den higiezinaren helbidea jarriko da.

«Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioak) «M» balioa hartzen badu, aitortutako azpigakoa edozein izanda ere, aitortzen den ondasun higigarriaren helbidea jarriko da.

En el caso del dinero efectivo y de las piedras y metales preciosos, será el valor conjunto de tales categorías de bienes el que deberá superar la cifra de 50.000 euros.»

Tres. El campo «Clave tipo de bien o derecho», que ocupa la posición 102 del registro de tipo 2, registro de detalle, de los diseños de registro del modelo 720, contenido en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— Posiciones: 102.

Naturaleza: Alfabético.

Descripción de los campos: Clave tipo de bien o derecho.

Se consignará la clave alfabética que corresponda en función del tipo de bien o derecho que se posea a lo largo del ejercicio:

«C»: Cuentas abiertas en entidades que se dediquen al tráfico bancario o crediticio y se encuentren situadas en el extranjero.

«V»: Valores o derechos situados en el extranjero representativos de la participación en cualquier tipo de entidad jurídica, valores situados en el extranjero representativos de la cesión de capitales propios a terceros o aportados para su gestión o administración a cualquier instrumento jurídico, incluyendo fideicomisos y «trusts» o masas patrimoniales que, no obstante carecer de personalidad jurídica, puedan actuar en el tráfico económico.

«I»: Acciones y participaciones en el capital social o fondo patrimonial de Instituciones de Inversión Colectiva situadas en el extranjero.

«S»: Seguros de vida o invalidez y rentas temporales o vitalicias, cuyas entidades aseguradoras se encuentren situadas en el extranjero.

«B»: Titularidad y derechos reales sobre inmuebles ubicados en el extranjero.

«M»: Titularidad y derechos sobre bienes muebles cuyo valor unitario sea superior a 50.000 euros, situados o que se hayan encontrado situados en el extranjero.

En el caso del dinero efectivo y de las piedras y metales preciosos, será el valor conjunto de tales categorías el que deberá superar la cifra de 50.000 euros.

«R»: Titularidad y derechos sobre bienes muebles cuyo valor unitario sea superior a 50.000 euros, matriculados o inscritos en registros situados en el extranjero.

No deberá suministrarse información relativa a los seguros de vida que cubran exclusivamente el riesgo de muerte (sin perjuicio de que puedan cubrir riesgos complementarios en otros ramos distintos al de vida) y que no tengan valor de rescate.»

Cuatro. El campo «Domicilio de la entidad o ubicación del inmueble o mueble», que ocupa las posiciones 251 a 414 del registro de tipo 2, registro de detalle, de los diseños de registro del modelo 720, contenido en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— Posiciones: 251-414.

Naturaleza: Alfanumérico.

Descripción de los campos: Domicilio de la entidad o ubicación del inmueble o mueble.

Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «C», «V», «I» o «S», se consignará en este campo la dirección de la entidad identificada en los dos campos anteriores.

Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «B», independiente de la subclave declarada, se consignará la dirección del inmueble objeto de la declaración.

Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «M», independiente de la subclave declarada, se consignará la dirección del mueble objeto de la declaración.

Eremu hau honela banatzen da:

251-302: Bide publikoaren izena eta etxe zenbakia.

Bide publikoaren izen luzea jarriko da. Izen osoa ez bada sar-tzen, ez jarri ez artikulurik, ez preposizioirik eta ez konjuntzioirik. Tituluak laburbilduta adieraziko dira (adibidez: KT=Kondea). Gai-nerako kasuak erabilera orokorreko siglen arabera laburtuko dira. Halaber, zenbakia edo puntu kilometrikoa ere adieraziko da.

303-342: Osagarria.

Beharrezkoa bada, eremu honetan jarriko dira helbidea bere osoan identifikatzeko beharrezkoak diren gainerako datuak.

343-372: Herria/hiria.

Helbidea zein herri edo zein hiritan dagoen kokatuta jarriko da.

373-402: Probintzia/Erregioa/Estatua.

Eremu honetan adierazi behar da helbidea zein probintzia, erregio, estatu edo departamentutan dagoen; bestelako banaketa politiko edo administratibo batean egonez gero, haren izena ja-rriko da.

403-412: Posta kodea (ZIP Code).

Helbideari dagokion posta kodea jarriko da.

413-414: Herrialdearen kodea.

Helbideari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak herrialde eta lu-rraldee dagokien III. eranskinean jasotzen dituen gako alfa-betikoaren arabera.

Eremu hau bete gabe utziko da «Ondasun edo eskubide mota-ren gakoa» eremuak (102. posizioak) «R» balioa duenean.»

Bost. «Ondasunaren edo eskubidearen jatorria» eremua (423. posizioa foru aginduaren II. eranskineko 720 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan -xehetasun erregistroan-), ho-nela geratzen da idatzita:

«— Posizioak: 423.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Ondasunaren edo eskubidearen jatorria.

Ondasunaren edo eskubidearen jatorria adierazi behar da, gako alfabetiko hauen arabera:

«A»: lehenengo aldiz aitortzen den edo aitortpenaren ekitaldian gehitzen den ondasun edo eskubidea.

«M»: aurreko ekitaldietan aitortu den ondasun edo eskubidea. Ondasun edo eskubide bat berriro aitortu beharko da, «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuan (102. posizioan) jarritako gakoaren arabera, honako kasu hauetan:

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. po-sizioa) «C» balioa hartzen duenean, baldin eta kontuen abendu-aren 31ko baterako saldoa edo azken hiru hilabeteak dagokion batez besteko baterako saldoa 50.000 eurotik gorakoa bada.

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102 po-sizioa) «V», «I» edo «S» balioa hartzen duenean, baldin eta haien guztien abenduaren 31ko baterako saldoa eta balioa 50.000 eu-rotik gorakoa bada.

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioa) «B» balioa hartzen duenean, baldin eta, azken aitortpenaz geroztik, eskurapen balioa eta abenduaren 31ko balioa, batera hartuta, 20.000 eurotik gora handitu badira.

Aitortpena derrigorrez aurkeztu beharko da, nahiz eta 20.000 euroko kopurua ez gainditu, baldin eta aitortzailea «ondasun edo eskubide motaren gakoarekin» markatutako ondasun eta esku-bideetako edozein aitortzera behartuta badago.

Este campo se subdivide en:

251-302: Nombre vía pública y número de casa.

Se consignará el nombre largo de la vía pública, si no cupiese completo el nombre, no se harán constar los artículos, preposi-ciones ni conjunciones y se pondrán en abreviatura los títulos (vgr. cd = Conde). Los demás casos se abreviarán utilizando las siglas de uso general. Asimismo se consignará el número o punto kilométrico.

303-342: Complemento.

En su caso, se harán constar en este campo los datos adi-cionales que resulten necesarios para la completa identificación del domicilio.

343-372: Población/ciudad.

Se consignará el nombre de la población o ciudad en la que se encuentra situado el domicilio.

373-402: Provincia/Región/Estado.

Se consignará en este campo el nombre de la Provincia, Re-gión, Estado, Departamento o cualquier otra subdivisión política o administrativa, donde se encuentre situado el domicilio.

403-412: Código Posta (ZIP Code).

Se consignará el código postal referido al domicilio.

413-414: Código país.

Se cumplimentará el código del país o territorio correspon-diente al domicilio, de acuerdo con los códigos alfabéticos de países y territorios que figuran en el anexo III de la Orden Foral 567/2016, de 14 de diciembre.

Este campo quedará en blanco cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «R».

Cinco. El campo «Origen del bien o derecho», que ocupa la posición 423 del registro de tipo 2, registro de detalle, de los di-seños de registro del modelo 720, contenido en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— Posiciones: 423.

Naturaleza: Alfabetico.

Descripción de los campos: Origen del bien o derecho.

Se consignará el origen del bien o derecho de acuerdo con las siguientes claves alfabéticas.

«A»: Bien o derecho que se declara por primera vez o que se incorpora en el ejercicio de la declaración.

«M»: Bien o derecho que ya ha sido declarado en ejercicios an-teriores. Se deberá declarar un bien o derecho de nuevo depen-diendo de la clave «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) declarada en los siguientes casos:

— Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «C», si el saldo conjunto de las cuentas a 31 de di-ciembre o el saldo medio conjunto del último trimestre de las cuen-tas supera la cifra de 50.000 euros.

— Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «V», «I» o «S», si el saldo y valor a 31 de diciembre conjuntamente considerado de todos ellos supera la cifra de 50.000 euros.

— Cuando la «Clave tipo de bien o derecho» (posición 102) tome el valor «B», si el valor de adquisición y valor a 31 de diciem-bre conjuntamente considerados hubiese experimentado un in-cremento superior a 20.000 euros respecto del que determinó la presentación de la última declaración.

Será obligatoria la declaración cuando, aun no superando la cantidad de 20.000 euros, el declarante venga obligado a declarar cualquiera de los bienes y derechos consignados con la «clave tipo de bien o derecho» (posición 102) «C», «V», «I», «S», «M» o «R».

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioa) «M» balioa duenean eta «Ondasun higiezin edo higigarri motaren gakoa» eremuak (475. posizioa) «F», edo «P» ez den balioa hartzen duenean, baldin eta ondasun mota bakoitzaren balio unitarioa 50.000 eurotik gorakoa bada.

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioa) «M» balioa duenean eta «Ondasun higiezin edo higigarri motaren gakoa» eremuak (475. posizioa) «F» edo «P» balioa hartzen duenean, baldin eta ondasun mota bakoitzaren baterako balioa 50.000 eurotik gorakoa bada.

— «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak (102. posizioa) «R» balioa hartzen duenean, baldin eta ondasun mota bakoitzaren balio unitarioa 50.000 eurotik gorakoa bada.

«C»: titulartasuna iraungitzeagatik, baimena edo xedatze ahalmena errebokatzeagatik edo beste edozein motatako titulartasun erreala iraungitzeagatik aitortzen den ondasun edo eskubidea.»

Sei. «1. balorazioa: Saldoa edo balioa abenduaren 31n; Saldoa edo balioa iraungitze datan; Eskurapen balioa» eremua (432tik 446ra bitarteko posizioak foru aginduaren II. eranskineko 720 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan -xehetasun erregistroan-), honela geratzen da idatzita:

«— Posizioak: 432-446.

Izaera: Alfanumerikoa.

